

Euskarazko lau mila liburu Iparraldeko liburutegientzat

Miren Azkarate Kultura sailburua Ezpeletako herriko etxean egon zen atzo urtero egiten den euskal liburuen eskaintzaren ekitaldian. Badira 9 urte, Eusko Jaurlaritzak euskarazko liburuak eskaintzen dituela Ipar Euskal herriko liburutegi eta ikastegietan banatzeko. Aurten 4.004 liburu daude, gehienak iazko Durangoko azokarako aurkeztu ziren. 339 izenburu daude eta genero guztietakoak dira. Liburu horiek Iparraldeko herrien arteko sindikatuaren eta Ikas Iparraldeko pedagogia zentroaren esku utzi ditu Jaurlaritzak. Oparia baino gehiago elkarlanaren fruitua omen da atzokoa Azkarateren hitzetan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ezin du literaturaren banaketa ziurtatu Iparraldean, horregatik eskumena duen egiturekin elkarlanean aritzea da aterabide bakarra. Franck Dolosor.